

Gure blogga sortu ahal izateko hainbat baliabide desberdin kontutan hartu behar ditugu. Kasu honetan, internetez eskainiko dugun zerbitzu bat denez, baliabide fisikoak edo ekonomikoak baino gehiago baliabide intelektualak izango dira.



Lehenengo eta behin informatikaren arloan ezagutzak dauzkan pertsona bat beharko dugu, eta posible bada, bloggen arloan espezializatuta dagoen informatikoren bat. Bloggaren edukia egokia eta baliagarria izatea bezain garrantzitsua da blogga erakargarria eta nabegatzeko erraza izatea.

Kirolaren gaia landuko dugunez, gai horretan adituak diren pertsonak beharko ditugu. Dietak eskainiko ditugu, beraz nutrizionistaren bat behar dugu, hala nola, entrenamendu personalizatuak prestatzeko gai den aditu bat. Kirol munduko berriak ere argitaratuko ditugunez, prentsa marka desberdinekin edota kazetariekin aliantza beharko dugu.



Azkenik, diru irabaziak izan ahal izateko, ezinbestekoa izango da hainbat enpresa garrantzitsuk beren publizitatea gure bloggean txertatu nahi izatea.